



Kontakizuna

Helburua: 1. sekuentzia honetarako proposatzen den jarduera kontakizun bat egitea da. Kontakizun hori gure gizartearen egunerokotasunaren adibide izango da, eta ikus dezakegu gure ohiko beharrak asetzen dituzten produktu eta zerbitzu asko gure basoek eskaintzen dizkigutela edo eskaini ditzaketela. Adin-taldearen arabera, kontakizunak maila ezberdina izango du, eta helburua izango da kontakizun bakoitza aztertzea eta zerbitzu ekosistemikoak adierazten dizkiguten hitzak ateratzea eta lehen zehaztutako talde bakoitzean sailkatzen saiatzea.

Materialak: Jarduera gelan egiten da eta ez da aparteko materialik behar.

Garapena: Jarduera honetan kontakizun bat egiten da, hau da, ikasle baten egun bat deskribatzea eta ekosistema-zerbitzuekin dugun harreman zabal eta ezezaguna bilatzea.

Nire egunerokoan edozein egun

Gaur eskolara joateko garaiz altzatu behar naiz, asteartea da, nire iratzargailuak jotzen du, argia ematen dut, ohetik jaikitzen naiz eta egurrezko nire armairu polita irekitzen dut eguneko arropa aukeratzeko. Nire lagun handiak oparitu zidan kamiseta polit hori jantzi nahi dut. Ingurumena errespetatzeko moduan egina zegoela esan zidan. Gurasoak lehenago atera dira etxetik lanera joateko, baina berogailua piztuta eta gosaria prest utzi didate. Ahabiak ez zaizkit gustatzen, baina prest utzi dizkidaten pinoi eta gaztainak izugarri gustatzen zaizkit, baita esnea eztiarekin eta gailetak ere.

Eskolako eguna normala izan da, idazketa-azterketa bat izan dugu, eta gutxienez bi folio idatzi behar genituen, pozik nago ondo atera zaidalako, baina are gehiago nago ikaskide askori nire kamiseta gustatu zaielako.

Gaur jatekoa ez zait asko gustatu, lehenengotik garbantzuak zeuden, bigarren amurraina urdai-azpikoa eta perretxikoekin eta banana postrearekin. Bazkaldu ondoren etxera joan naiz etxeko lanak azkar egitera, lagunekin irten ahal izateko. Basoaren ibilbidea bizikletaz egiteko geratu ginen, oso polita da, ibaiaren ondotik igarotzen da, batzuetan animaliairenen bat ikusten da eta txori asko entzuten dira.

Pixka bat nekatuta eta afaltzeko gogoz iritsi naiz etxera, baina gurasoak lanpetuta zeuden nire gelan kortxoazko panel bat jartzen nire apunteak eta oharrak klikatzeko. Usain txarra zuen, gero panela berniz batekin margotu dutela dirudi eta.

Azkenean gurasoek afaria prestatzen dute, hau bai gustatzen zaidala, ez bazkaria bezala. Oso azkar afaltzen dut, eta telebista pixka bat ikusten uzten didate, baita beraien ezkaizko menta infusioa probatzen ere. Gero ohera joaten naiz eta gehien gustatzen zaidana egiten hasten naiz, hau da, nire egunerokoan idazten.

KONTAKIZUNEN HITZ KLABEAK: "Argia, armairua, kamiseta, berogailua, ahabiak, pinaziak, gaztainak, esnea, ezti, folioak, amurraina, perretxikoak, basoaren ibilbidea bizikletaz, ibaian, animalian, txoriak, kortxoa, berniza, menta eta ezkaia"